

IRABAZI ITURRIAK

Erreferentziako teknologia duten eskularruetarako diru-sarreraren estrategia ordainketa bakarreko diru-sarreraren eredu batean oinarritzen da, aktiboen salmentan zentratuta. Honek esan nahi du bezeroek inbertsio bakarra egingo dutela eskularruak eskuratzean, eta horrek berehalako diru-sarrerak eta kapital-sarrera emango ditu transakzioaren momentuan.

Irabazien iturri nagusia, diru-sarreraren ia %100 salmenta bakar horietatik etorriko da. Prezio finkoko eredu bat hartzean, balio konstante bat ezartzen da produktuarentzat. Horrek diru-sarreraren aurreikuspena eta epe luzerako finantza-plangintza ere errazten ditu. Erosketa egin ondoren, bezeroak urteko aseguru bat kontratatzeke aukera izango du, akatsetarako edo matxuretarako. Zerbitzu honek urtean 200€ balioko du salmenta bakoitzeko.

Hala ere, proiektu hau abian jartzeko, inbertsio garrantzitsua egin behar da, eta inbertsio hori banku-maileguren, bazkideen ekarpenen eta dirulaguntzen bidez finantzatuko da. Hasierako finantzaketa-iturri horiek funtsezkoak dira erreferentziako teknologia duten eskularruen garapenarekin, produkzioarekin eta merkaturatzearekin lotutako kostuak estaltzeko.

Ikerketan eta garapenean inbertitzeak etengabeko berrikuntza eta produktuaren hobekuntza bultzatuko ditu, funtsezkoa merkatuan lehiakortasuna mantentzeko. Bazkideen ekarpenak inbertitzaileengandik edo laguntzaile estrategikoengandik etor daitezke, eta proiektuaren hazkundera babestuko dute. Gainera, gobernu-erakundeetatik edo berrikuntzari laguntzeko programetatik etor daitezkeen dirulaguntzek bultzada gehigarria eskainiko dute produktuaren garapenerako eta merkatuan sartzeko.